

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ondarroako Udala****Administrazio Elektronikoa Arautzen duen Ordenantzaren behin-betiko onespena.**

Administrazio elektronikoa arautzen duen ordenantza 2017ko otsailaren 23ko Udalbatza Osoak hasiera batean onetsia eta 2017ko martxoaren 1eko Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratua izan ondoren jendaurreko epean zehar erreklamaziorik edo iradokizunak aurkeztu ez denez, behin-betikotzat hartua da Ordenantza horren onspen erabakia, berau, Toki Erregimenaren Oinarriak araupetzen dituen Legearen 70.2 artikulua betez, oso-osorik iragarriko delarik.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**ZIOEN AZALPENA**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Indargabetuta Legeak bere 45. artikuluan berariaz adierazitakoaren arabera, administrazio guztiek sustatu beharko lituzkete jarduerak garatu eta eskumenetaz baliatu ahal izateko beharrezkoak diren teknika eta baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera eta abian jartzea; betiere, Konstituzioak eta legeak baliabide horiek erabiltzeko jartzen dituzten mugak kontuan izanik. Betebehar orokor honek Toki Administrazioa osatzen duten Erakundeak ere barne hartzen ditu.

Beranduago, Tokiko Gobernua Berritzeko Neurriek buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen aldaketa nabarmena eragin zuen 70 bis artikuluko 3. atalean hurrengo gehituz: tokiko erakundeek, eta bereziki udalerriek, informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera interaktiboa sustatu behar dutela herritarrekin parte hartzea eta komunikazioa errazteko, dokumentuak aurkezteko eta izapide administratiboak, inkestak edota herritarrei kontsultak egiteko. Horrez gain, diputazio probintziales, kabildoek eta irletako kontseiluek laguntza emango diete ekonomia edo kudeaketa arloetan gaitasun nahikoa ez izateagatik atal honetan ezarritako betebeharrak bete ezin dituzten udalerriek.

Teknologia berrien erabilerari buruzko araudiaren bultzada berri honetan, herritarrak Zerbitzu Publikoetara modu elektronikoa sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, beste behin ere, berrespena ekarri zuen; eta, besteak beste, adierazi zuen «egoitza» administratibo elektronikoa argi eta garbi definitu behar dela, harremanak artikulatzeko. Horretarako, identifikazio, autentifikazio, gutxieneko eduki, babes juridiko, irisgarritasun, eskuragarritasun eta erantzukizun arloko erregimena sustatu behar da, prozedurak arautzeaz gain.

Azkenik, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak sendotu egin du sektore publiko osoaren funtzionamendu elektronikoa; izan ere, horrek indargabetu egiten du lehen aipatutako araudi-markoa, eta, zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta herritarrak Zerbitzu Publikoetara modu elektronikoa sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea. Gauzak horrela, aurreko araudi-panoramaren erregulazio osoa sistematizatu da, administrazio egintzen prozedura elektronikoa arautzeko asmoz; era berean, erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna eman zaie.

Modu paraleloan, ezin da ahaztu Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea. Hain zuzen ere, Lege horrek sistematizatu egiten du sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa, zenbait arlo modu unitarioan arautuz; besteak beste, sinadura eta egoitza elektronikoa, eta administrazio egintza automatizatuak.



Aipatutako guztia kontuan hartuta, eta esandako legeek herritarren eta administrazioaren arteko harremana eratzeko eta bermatzeko sustapenaren aldeko joera ezarri dutenez gero, eta errealitate berri honetara egokitzeko eta moldatzeko Bizkaiko lurralde historikoko Foru Aldundiak udaletxeei eskaintzen dieten laguntza kontuan izanez, baldintza eta betebeharrak dugu herritarrekin harremanak izateko udal markoa zehaztea; beraz,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskuduntzak erabiliz.

ARTIKULUAK

Lehenengoa: Ondarroako Udalak, agindu honen inguruan berari dagokion zatia be-tearazteko asmoz, adierazi du bere egoitza elektronikoa www.ondarroa.eus dela. Egoitza horretara telekomunikazio-sareen bitartez sartu daiteke, eta, bertan, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak eta informazioak daude jasota.

Bigarrena: Aldi berean, Ondarroako Udaletxeko Erregistro Elektronikoko Orokorra sortzen da 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera. Helburu horretarako, area edo idazkaritzako unitate organikoa bere kudeaketaren arduraduna izango dela zehazten da.

Erregistro Elektronikoko Orokor horrek Udaltzatuko erregistro guztiak integratuko ditu, eta borondatezkoa izango da pertsona fisikoentzat, administrazio prozedura baten edozein tramitetarako Administrazioarekin bitarteko elektronikoekin harremanetan jartzera derrigorritasun dardenen kasuan izan ezik.

Erregistro telematikora sartzeko aukera eguneko 24 orduetan zehar izango dute, urteko edozein egunetan. Sarrera eta/edo irteera data eta ordua jasotzen dituen zerbitzu elektronikoko baten bidez gordeko dira. Epeak bete diren ala ez erabakitzeke, laneguna ez denean jasotako dokumentuak hurrengo lanegunean jaso balira bezala erabiliko dira. Erregistro telematikoak data eta ordu ofiziala jarraituko ditu.

Erregistro telematikoaren bidez aurkeztutako eskaera, idazki edo jakinarazpenek in-darrean dagoen legeriak onartzen dituen beste baliabideen bidez aurkeztutako dokumentuek dituzten ondorio berak izango dituzte.

Erregistro telematikoak ez ditu egoitza elektronikokoan zehaztutako ereduak jarraitzen ez dituzten eskaerak, idazkiak edo jakinarazpenak onartuko. Era berean, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera Udaletxeak ezartzen dituen identifikaziorako eta biztanleen akreditaziorako mekanismoak betetzen ez badira, Erregistro telematikoak ez ditu eskaerak, idazkiak edo jakinarazpenak onartuko.

Erregistro elektronikoko orokorrak aurkeztutako edo jasotako dokumentu guztiei buruzko idazpenak utzi beharko ditu. Beste organo batzuei edo partikularrei zuzendutako dokumentu ofizialen irteerak ere idatzita utzi ahal izango dira bertan.

Era berean, beharrezko segurtasun neurriak izango ditu, datuak benetakoak direla bermatzeko eta modu irisgarri eta ikusgarrian agertzeko.

Ahal den neurrian eta arrazoi tekniko ondotioz erregistroa ezin izango dela erabili aurreikusten bada, erabiltzaileei ahalik eta arinen jakinaraziko zaie egoerak horrela jarraitzen duen bitartean.

Biztanleek Interneteko egoitza elektronikokoaren bidez Administrazioarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute eta era horretan egiteko prest dardenen izapideak bideratu ahal izango dituzte. Bitarteko elektronikoz egin ahal izango diren izapideak egoitzan bertan zehaztuko dira, baita Ordenantza hau garatuko duten bitarteko juridikoetan ere.

Hirugarrena: 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, beste zenbait kasuren artean, prozedura bateko interesdunak ezezagunak direnean, jakinarazpenaren tokia zein den jakin ezean, edo, jakinarazpena egiten saiatu arren, halakorik egiterik izan ez denean, Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinarazi aurretik, aukera egongo da iragarki bat argitaratzeko udaletxeko ediktuen taulan.

Herritarrek ez dute beraien nortasuna egiaztatzeke mekanismorik behar izango edik-tu taula elektronikora sartzeko.



Ediktu taula elektronikoa Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko da. Ediktu taula elektronikoa edukien egiazkotasuna, integritatea eta erabilgarritasuna bermatzen dituzten sistema eta mekanismoak izango ditu legeriak aurreikusten dituen baldintzen arabera.

Dagozkien epeak neurtzeko, ediktuen argitalpen dataren eta orduaren adierazpena bermatzen dituen mekanismo bat ezarriko da.

Udal egoitzaren bidez ediktu taula elektronikoa ikusteko aukera izango dute eguneko 24 orduetan zehar, urteko egun guztietan. Arrazoi teknikoen ondorioz ediktu taula elektronikoa ezin izango dela erabili aurreikusten bada, ahalik eta arinen jakinaraziko zaie erabiltzaileei, eta taula kontsultatzeko dituzten beste baliabideak adieraziko zaizkie.

Laugarrena: Alkatetzaren Dekretu bidez, aurreko artikulua betetzen dituen zehaztapen multzo bat onartuko da, zerbitzuaren etorkizuneko baldintzei kalterik egin gabe, Ordenantza honen hainbat alderdi homogeneizatu eta finkatzeko.

Xedapen iraungitzailea: Honako ordenantza honek iraungi egiten ditu berarekin kontrastean dauden edo aurkatzen gainerako maila bereko edo maila baxuagoko xedapen orokorrak.

Ordenantza honek espreski iraungitzen du orain arte indarrean izan den Administrazio Elektronikoa arautzeko ordenantza.

Honen berri emango zaie Udal Arloen eta Udalaren Erakunde Autonomoen ardura-dunei eta Ondarroako Udalaren webgunean argitaratu egingo da. Toki Erregimenaren Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantza hau testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta aipatu lege-testuaren 65.2. artikuluan ezarritako hamabost egun baliodunen epea igaro ondoren sartuko da indarrean.

Ondarroan, 2017ko maiatzaren 10ean. — Alkatea, Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga